

# AMOREBIETA-ETXANOKO

## I. IPUIN LABURREN LEHIAKETA

### Oinarriak

#### 1.- Baldintzak

- Parte-hartzaileek Amorebieta-Etxanon erroldatuta egon beharko dute.
- Ipuinak euskaraz idatziko dira: batueraz edo bizkaieraz.
- Lan originalak eta argitaratu gabeak izango dira.
- Lanak A4 formatuko orrietan idatziko dira, lerroarte bikoitzean; eta Arial letra mota edo antzekoa eta 12 letra-tamaina erabiliko dira.
- Ipuinak gehienez 3.000 karaktere izango ditu (zuriuneekin), izenburua eta zehaztutako ipuinaren hasiera barne.
- Ipuinak hasiera honi eman beharko dio jarraipena: *“Bete gabe nituen, artean, hamazortzi urte...”*

#### 2.- Kategoriak

- A kategoria: egile gazteak (16-22 urte bitartekoak).
- B kategoria: helduak (23 urtetik gorakoak).

#### 3.- Non eta zelan aurkeztu

- Lanak Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (udaletxean edo Zelaieta zentroan) aurkeztuko dira, edo posta arruntez helaraziko dira helbide honetara: Amorebieta-Etxanoko Udala, Herriko plaza z.g.; 48340 Amorebieta-Etxano.
- Lanak gutunazal itxian aurkeztuko dira, egilearen ezelako argibide barik; ez gutunazalean, ez idazlanean. Gutunazal handian honako hau baino ez da agertu behar idatzita: “AMOREBIETA-ETXANOKO I. IPUIN LABURREN LEHIAKETA” eta, kategoria mota “A kategoria” edo “B kategoria”. Gutunazal horren barruan, lanarekin batera, gutunazal txikiago bat sartu beharko da egilearen datuekin: izen-abizenak, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta NANaren kopia.

#### 4.- Lanak aurkezteko epea

- Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 8an amaituko da, 14:00etan.

#### 5.- Epaimahaia

- Amorebieta-Etxanoko Udalak epaimahaia izendatuko du, euskara zerbitzuko eta liburutegiko teknikariek osatuta.

#### 6.- Sariak

- Kategoria bakoitzeko irabazleak bertoko produktuen otzara bat jasoko du, eta ipuin saridunak argitaratu egingo dira Udalaren webgunean eta eskualdeko komunikabideetan.

#### 7.- Sariak banatzea

- Sariak 2024ko apirilaren 23an bananduko dira, horretarako beren-beregi antolatuko den ekitaldian.

8.- Sarietako edozein eman barik geratu daiteke, baldin eta epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez badute.

9.- Emandako datu pertsonalak Literatura Lehiaketaren esparruan erabiliko dira, bertan lehiakide gisa jardun dadin. Lanak hirugarrenei bidali ahal izango zaizkie lehiaketaren garapenarekin lotutako logistika-zerbitzuak egite aldera.

10.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.